



**2000KO AZAROAREN 30EKO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi milako azaroaren hogeita hamarreen, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Urko Irastortza Aldanondo eta Jose Antonio Dopazo Martin.

Inazio Estensoro Eskisabel, Julio Ibañez Urteaga eta Jose Luis Otamendi zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Jon Agirre Garmendia zinegotzia bertarutzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2000ko urriaren 26an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- UDAL TRIBUTUETAN ZENBAIT SALBUESPEN ESKARI.-

Elizaren eskaria.- Juan Maria Olaetxea Garaikoetxeak, Lazkaoko Mikel Goiaingeruaren Parroki Elizako Parrokoak ziurtagiri bat aurkeztu du Udal honetan, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 4.d) artikulua xedatzen duen salbuespenaren ondorioetarako dela adieraziz. Ziurtagiri horretan esaten da Lazkaoko Mikel Goiaingeruaren Parrokiaren jabegokoa dela Bikario Etxea, Elosegia 36an kokatzen dena eta behe, lehen eta bigarren saolairuak dituen apaizaren etxebizitzarako eta pastoraletako jardura zenbaitzutarako erabiltzen dela.

Horren aurrean, eta uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak bere 4.d) artikuluan xedatutakoa eta Estatuaren eta Sede Santuaren arteko 1979ko urtarrilaren 3ko gai ekonomikoari buruzko Akordioan aurrikusitakoa kontutan izanik, gaia Hazienda Batzorde Informatiboan informatua izan delarik, eskatutako salbuespena onartzea proposatzen da.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuz, proposamena onartzea erabakitzen du.

...///...

...///...

Eusko Jaurlaritzaren eskaria.- Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioak, IFZ S4833001C, eta bere izenean, otsailaren 16ko 119/1999 Dekretuan ezarritakoaren arabera Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Zerga Administrazioako zuzendaria den Miguel Ortega Abad Jau-nak, Maizpide Euskaltegiaren Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga likidazioa dela eta, Onda-sun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak bere 4.a) artikuluan xedatutakoan oinarrituta, Maizpide Euskaltegiaren irakaskuntza zerbitzuak daudela eta, likidazio hori baliogabetzat jo eta Maizpide Euskaltegia Ondasun Higiezinaren gaineko Zergatik salbuetsia gera dadila eskatzen du.

Hau horrela eta gaia Haziendako Batzorde Informatzailean informatua izan zelarik, Maizpide Euskaltegia Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak bere 4.a) artikuluan xedatutakoan barneratzen dela kontsideratuz, Maizpide Euskaltegiaren Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren likidazioa (zbk. finkoa 5070780-A) baliogabetzat jo eta ondasun hau Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondo-rioetarako salbuetsita gera dadila proposatzen da.

Osoko Bilkurak, bertaraturako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartu egiten du.

Une honetan Jon Agirre Garmendia zinegotzia bertaratu da.

Alkateak beste eskari bat ere egon dela adierazten du, Pingon, Talleres Elcoro eta Harlandu kooperatibek izenpetutakoa. Eskari honetan Udalak kooperatiba hauei Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren % 95eko hobaria onar dezaiela eskatzen dute eta honetarako Kooperatiben Erregimen Fiskalei buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauean eta Gipuz-koako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauean xedatutakoan oinarritzen dira. Gehitzen du Alkateak, 1992 eta 1995ean ere era honetako eskariak izan zi-rela Pingonen aldetik eta 1995ekoan behintzat Osoko Bilkuran tratatu zela gaia eta aho ba-tez eskariari ezezkoa ematea erabaki zela. Bukatzeko, esaten du, eskari honek Ekonomi Jar-dueren gaineko Zergaren ordenantza fiskalean aldaketa bat sartzea suposatuko lukeela.

IV.- KEMEN-EK TARTEJARRITAKO KONTENTZIOSO-ADMINISTRATIBOA.-

Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salak Goierriko Kirol Teknikoak enpresari Joxemiel Barandiaran Udak Kiroldegiko sorosle, harrera eta kirol zerbitzuen kontzesioaren esleipenari dagokion espedientea bidaltzea eskatu du, Eukeni Mi-rena Errapel Lasa Lasa eta Kemen Kirol Osasun Zerbitzuak, S.L.k aipatu esleipenaren aurka jarritako errekurtsio kontentzioso-administratiboaren aurrean.

Honen aurrean, Alkateak, 2000ko azaroaren 3ko ebazpen bidez, zera ebatzi zuen:

- 1.- Euskal Herriko Justizi Auzitegiko Salara eskatutako espedientearen egiaztatutako kopia fo-liatuta eta dokumentuen indizearekin bidaltzea.
- 2.- Espedientean interesatu direnak enplazatzea, 9 egunetako epean errekurtsioan demandatu bezala bertaratu ahal izateko.
- 3.- Udala prozedimentuan bertaratzea, Javier Hernaez Manrique abogatuia izendatuz Udala-ren ordezkapen eta defentsarako.

...///...



...///...

Hau honela, Udal Osoko Bilkurara ekartzen da, honek alkatetzako ebazpen bidez hartutako erabakia berretsi dezan.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du beraiei ondo iruditzen zaiela KJEMENek bere bidea jarraitzea eta ez direla sartuko eta abstenitu egingo direla.

Hau horrela, Osoko Bilkura, aldeko 5 botuz (EAJ-PNV, EA, PSE-EE) , aurkako boturik gabe eta 3 abstentzioz (EH), alkatetzako ebazpen bidez hartutako erabaki hauetan berretsi egiten da.

V.- GOIERRI INDUSTRIA LURRA, S.A. SORTZEKO PROPOSAMENA.-

Alkateak esaten du horretarako izan diren bileren ondoren badirudiela datorren urtean sortuko dela Goierri Industria Lurra, S.A. eta Udal bakoitzak bere parte hartzea zehaztu beharko lukeela. Asmo honen arabera elkarte honek Goierriko udal gehieneko gehieneko guztien partaidetza izango luke eta hauen partaidetza % 24,5ekoa izango litzateke, Diputazioak beste %24,5eko izango luke eta SPRILUREk %51ko partaidetza izango luke. Gehitzen du udalen %24,5eko partaidetza honetatik %35a A motako akzioez osatutakoa izango litzateke eta A motako akzioak deitutako hauek nahi duten Goierriko herri guztiak suskribitu ahal izango dituzte. Beste %65a B motako akzioez osatutakoa izango litzateke eta hauek bere herrian industria lurra garatzen ari deneko udalerriek suskribituko litzukete. Gehitzen du beraz orain planteatzen dena udalaren konpromezua dela A motako akzioak erosteari buruz eta esaten du egin den azterketaren arabera Lazkaok jarri beharreko kopurua 12 milioi peseta ingurukoa litzakela.

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du erabakia atzeratzea eskatzen dutela eta ez aurka daudelako baizik eta prozeduran arazo bat egon dela iruditzen zaielako. Gehitzen du proposamen hau alkateen arteko bilera batean hitzegindakloa dela baina ez GOIEKiko administrazio kontseiluan.

Alkateak erantzuten dio esanez bilerak GOIEKiko egoitzan egin direla eta berak orain ezingo lukeela zehaztu GOIEKiko bilerak izan diren ala ez. Dena den, gehitzen du, GOIEKI ez dela Udalen ordezkari eta erabaki hau udalek hartu beharrekoa dela.

Dopazo zinegotziak proposamena zein litzatekeen galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio proposamena Goierri Industria Lurra, S.A.n sartzeari buruzko Lazkaoko Udalaren aldeko borondatea azaltzea litzatekela, horretarako dagokion A motako akzioak suskribituz, hauek, egin den azterketa baten arabera 12 milioi peseta inguruan izango liratekelarik.

Gaia zabal eztabaidatu ondoren, Alkateak esaten du mahai gainean uzteko ez daukala inolako eragozpenik eta hurrengo Osoko Bilkuran onartuta ere ez dela ezer gertatzen.

Dopazo zinegotziak esaten du ondo iruditzen zaiola mahai gainean uztea baina gaiaren inguruan bere iritzia eman nahiko lukeela, eta esaten du bera Lazkao Industria Lurra, S.A. mantentzen saiatuko litzakela nahiz eta jakin hori zaila dela. Esaten du baita ere oraingo proposamena, hau da, beste herri batzuekin batera sartzea Lazkaoren kaltetan doala.

...///...

...///...

Alkateak erantzuten dio bailara mailan antolatzen ez bada SPRILUREk alde egingo lukeela.

Guzti honen ondoren gaia mahai gainean gelditzen da.

VI.- S.13.4 ETA S.13.5 EKO XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.-

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 13 Hirigintz Areako 13.4 eta 13.5 orubeetako -Hiribarren Klean- Xehetasun Azterketaren aldaketari 2000ko ekainaren 13ko Alkatetzako Ebazpen bidez eman zitzaion haserako onarpena, baldintzatua. Xehetasun Azterketa hau Construcciones Zuga, S.L.k aurkeztu du, Jose Uribe-Etxeberria Fernandez arkitektoak idatzitakoa da eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Elkargo Ofizialeko 2000ko otsailaren 11ko datako bisatua darama.

Xehetasun Azterketa hau jendaurrean hamabost eguneko denboraldian eduki da eta epe horretan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu. Epez kanpo Francisca Arroyo Gago A.ren alegazio bat jaso da baina geroztik lagun honek berak izenpetutako idatzi bat jaso da alegazio hori jarri gabetzat hartzeko eskatuz.

Bestalde, haserako onarpenean jarritako baldintzetan eskatzen ziren zehaztapenak ekarri dira eta udal teknikoek ekarritako nahikotzat jo dute.

Hau honela, Osoko Bilkurak, aho batez, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 13 Hirigintz Areako 13.4 eta 13.5 Orubeetako -Hiribarren Klean- Xehetasun Azterketaren aldaketa hau behin betikoz onartzea erabakitzen du.

VII.- 1 H.A.KO BARNE ERALDAKUNTZARAKO BERARIAZKO EGITASMOAREN ALDAKETAREN (GERRIKO) BEHIN BEHINEKO ONARPENA.-

Gerriko S.A.ren proposamenez, Udal honek Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 Hirigintz Areako Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren aldaketa puntuala formulatu du, Jon Orue-Etxebarria Iturri abogatuak idatzita. Aldaketa hau, Elozegi Kaleko 16 zbki.dun egoitza-eraikineko goiko solairuetan erabileren errejimena salbuespeneko izaeraz handitzean datza, solairu horiek komunitate egoitza bezala erabili ahal izango direlarik, non soilik hostal eta/edo pentsio erabilera ezarri ahal izango den.

Aldaketa puntual honi 2000ko urriaren 5eko Alkatetzako Ebazpen bidez eman zitzaion haserako onarpena.

Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren aldaketa hau jendaurrean hamabost eguneko denboraldian eduki da eta epe horretan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere 8 partaideen aldeko botuarekin, eta beraz, Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuz Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 Hirigintz Areako Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren aldaketa puntual hau behin behineko onartu eta dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea erabakitzen du, honek behin betiko onarpenari buruz ebatzi dezan.

...///...



...///...

VIII.- 3 SEKTOREKO PLAN PARTZIALAREN ALDAKETAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENNA.-

Construcciones Aburuza, S.A.k formulatu eta Fernando Carazo Amundarain arkitektoak idatzitako Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 3 Sektoreko P.1eko Plan Partzialaren aldaketa puntuala aurkeztu zen bere onarpenerako. Dokumentuak Euskal Herriko Arkitektuen Elkargo Ofizialaren 2000ko urriaren 24ko bisatua darama.

Aldaketa puntual honi 2000ko urriaren 31ko Alkatezako Ebazpen bidez eman zitzaion haserako onarpena.

Onarpen honen ondoren dokumentua jendaurrean erakutsita eduki da 15 lanegunetako denboraldian iragarkia Udaletxeko Iragarki Oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta El Diario Vasco eta Egunkaria egunkarietan argitaratuz eta ukitutako lur jabeei banakako jakinarazpena eginez eta denboraldi horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Bestalde eta azaroaren 25eko Errepide eta Bideetako 17/1.994 Arau Foraleko 94. Artikuluak dioena betez Plan Partzialaren aldaketa puntual honen ale bat Gipuzkoako Errepide Zuzendaritzara bidali zen, txostena egin zezaten. Gipuzkoako Errepide Zuzendaritzak ere bere txostena egin du eta beronek aldaketa puntual hau ondo ikusten duela adierazten du..

Honen aurrean eta Hirigintza Batzordearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertarutako guztien aldeko botuarekin, 8 lagun, guztiak 11 direlarik, eta beraz gehiengo oso legialaren aldeko botuarekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- 3 Sektoreko Plan Partzialaren aldaketa puntual honi behi behineko onarpena ematea.
- 2.- Espediente osoa Gipuzkoako Foru Diputaziora bidaltzea honek behin betiko onarpenari buruz ebatzi dezan.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Amundarain zinegotziak (EH) Urruñako Ikastolaren eskari bati buruz galdetzen du eta erantzuna ezezkoa izan dela uste duela gehitzen du.


Alkateak erantzuten dio esanez erizpide nagusia dirulaguntzak herriko elkarteei ematea izaten dela, zeren mota horretako eskariak asko izaten direla eta denei baiezkota erantzuten hasi ezker aurrekonturik gabe geldituko ginatela. Gaineratzen du Alkateak gainera dirulaguntza hori Ordizian jaialdi bat antolatzeko zela.

Amundarain zinegotziak esaten du beste kasu batzuetan eman izan dela.

Lamy zinegotziak, Kultura batzordeko presidente gisa, esaten du hurrengo batzordean hitzegingo dela gai honi buruz eta esplikatu dela zein erizpide jarraitzen diren.

Irastortza zinegotziak (EH) egin berri den kirol omenaldian egindako zenbait gonbidapen ez zaizkiola ondo iruditzen eta batipat ez duela ikusten Bizakia eta Arabako Diputaziotzuei gonbidapena egin izana.

...///...



...///...

Alkateak erantzuten dio Joseba Beloki Lazkaon jaiotakoa dela, Gasteizen bizi dela eta bere lehen talde profesionala Euskaltel izan zela eta hori izan zela pixka bat hiru Diputazioei gonbidapena egitearen arrazoia.

Irastortza zinegotziak "Euskal Herriaren eskubide zibilak" eskuliburua banatzen du zinegotzi guztien artean.

Alkateak esaten du datorren hileko osoko bilkura aurreratu egingo dela, 21era edo.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortzi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

